

## **IRAKASKUNTZA PUBLIKOAK JASATEN ARI DEN MURRIZKETEN AURREAN**

Familia agurgarriak:

2011-2012 ikasturteak ez du berri onik ekarri EAEko irakaskuntza publikora: murrizketa politikari jarraipena eman dio Hezkuntza Sailak bigarren urtez.

Sortu ez dugun eta jasaten ari garen krisiari aurre egiteko gobernuek hartzen ari diren neurri nagusiak herritarren lan baldintzak eta zerbitzu publikoak biziki murrizten ari dira. "Denon artean konpondu" eta antzeko mezu faltsuak erabiliz isilarazi nahi gaituzte, beraiek hartzen dituzten neurriak ezinbestekoak direla sinetsi dezagun.

Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak erabaki dituzten politika ekonomikoak daude neurri hauen oinarrian. Bereziki larriak dira 2010ean Hezkuntza Sailak berak ezarri zituen planifikazio mailako neurriak. Besteak beste, ondoko hauek gauzatzen ari dira irakaskuntza publikoan:

- Matrikulak izan duen gorakadari aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak ez zaizkio erantsi orain arteko plantillari; ikasle kopuruak gora egin duen neurri berean ez da handitu irakasle kopurua. Honek, bigarren urtez jarraian, ekarri du baliabide mailako galera.
- Ordezkapenak betetzeko araudiak zuzen zuzenean kaltetzen du hezkuntza kalitatea. Nola deitu, bestela, kasu askotan ikasleak ordezko irakaslerik gabe 5 egun edo gehiago pasatu behar izatea?
- Ikastetxeetako klaustroen eta irakasleen ardurak etengabe handitzen jarraitzen dute, gero eta arazo gehiago dago ikastetxeetan ardura guztiei heltzeko, ikasleen aniztasunari eta behar bereziei egoki erantzuteko, ikastetxeetako proiektuei aurre egiteko, formazioa burutzeko eta ikastetxearen antolaketa oinarritzko parametro egokitan garatzeko.

Adibide moduan azaldu ditugun hauek modu argian erakusten dute nolako kaltea jasotzen duen oinarritzko zerbitzua den irakaskuntza publikoak. Kezka hau da zuekin partekatu nahi duguna, azken finean, zuen seme-alaben hezkuntza kalitatea delako arriskuan jartzen dena halako neurri murriztaileen ondorioz, baliabide gutxiago dagoelako, denbora bera ez dugulako ikasleei behar duten arreta eskaintzeko, aukera urriagoak ditugulako proiektuak eta formazioa garatzeko eta lan baldintza kaskarragoetan aritu behar dugulako.

Eskola komunitate osoaren elkarlana ezinbestekoa izango da, berriro ere, irakaskuntza publikoa modu duinean mantentzeko ahaleginean, ikasleen hezkuntza eskubideak, irakaskuntza publikoko irakasleon lan baldintzak eta hezkuntzaren kalitatea erabat kaltetzen dituzten murrizketak alde batera uzteko exijituz.

Langile Ikastolako Gelaburuak  
2011ko azaroaren 25ean

**MURRIZKETARIK EZ!!**  
**HEZKUNTZA KALITATEA DEFENDA DEZAGUN!!**  
**LAN BALDINTZAK HOBETU, ESKOLA PUBLIKOA INDARTU!!**